

KOSTUEN EGITURA

Negozio-eredu bat aurrera ateratzeko kostuen egitura kontuan izan behar dugu:

KOSTU FINKOAK

- UGASSAK utzi behar digun ofizinaren alokairua 30€ dira hilabeteen; wifia eta elektrizitatea lortuko ditugu prezio baxuan.
- Diseinua sortzean, produktua egiteko behar izango ditugun piezak erosi izan beharko ditugu eta hauek kostu handia edukiko dute. Horregatik, 1.200€-ko inbertsioa egitea pentsatu dugu hasieran, honek interes handiak erakar ditzake.
- Asegurua edukitzea ezinbestekoa iruditzen zaigu ezbeharren bat gertatzen bada; hori dela eta seguru-enpresekin hitz egitera joan gara, zer eskaintzen diguten entzutera. Azkenean, Verti enpresak 400€ urtean ordainduta oso seguru ona eta konpletua eskaini digu.
- Gure produktua inorrek ez dezan kopiatu, patentatu egin behar dugu eta horretarako 150€ urtean ordainduko ditugu.
- Enpresa sortutakoan ez digu inorrek ezagutuko eta publizitateak egingo ditugu gure bezero tasa igo dadin. Lehenengo, Diario Vasco egunkarian eta sare sozialetan idatziko dugu gure enpresari buruzko artikulu bat, bertan enpresaren informazio guztia jarriko dugu jendearen atentzioa deitzeko. 400€ iragarkian inbertituko dugu.



KOSTU ALDAKORRAK

- Esan dugun bezala, Aimar Arranzek furgoneta bat du eta gure produktua garraiatzeko erabili behar dugu. Furgoneta zaharra izatean, 10l/100km-ko du gasolina gastua. Ondorioz, 12€/100km-ko kostatuko du.
- Gure kaskoaren ekoizpenaren gastuak 40€/u izango dira.

- Prozesu guztiek kostu jakin batzuk sortzen dituzte eta gure enpresa gai izan beharko da kostu horiei aurre egiteko. Kostu guzti hauek kontuan hartuta, lehenengo hilean 3.010€-ko kostuak izango ditugu.

Proiektuarekin hasteko 5.600€ ditugu, kostu finkoak direnak. Horrez gain, hasieran egingo dugun publizitatea eta lehenengo hilabetean 250km egingo ditugula kontuan izanik, 1.010€-ko kostua izango dugu. Gainera, 40€ kostatuko zaigu kasko bakoitza, beraz 2.800€ gastatuko ditugu hilean kaskotan, guztira 3.810€.

Gastu guztien ondoren, 9.164€ izango ditugu eta lortu dugun dirutik, 5.000€ enpresaren diru korrontean gordeko ditugu. Bestalde, gainontzeko guztia guretzako izango da, hau da, 1.388€ bakoitzarentzat.

